# KARDABERAZ

EUSKEREAK BURUA JASOTZEA *******NAI DU JAUNGOIKOAK



5'GN ZENBAKIA

# ARTZAI BILA

MENDI-MENDIAN, ARTZAI JANTZIAN,
BIOTZA NUNBAIT SAMIÑEZ
JOSU GAZTEA, NEKEZ BETEA
ARKITU NUEN NEGAREZ.

--------

OTSO MALTZURAK, BIOTZ GABEAK
JO ZUAN AREN ARTALDE ......
MENDI ZULOAN, BASO BASOAN
SARTU ZAN BEINGOZ ARKUME /....

--------

ARTZAI BILA ZAN EUSKAL ERIAN
JOSU GAZTEA BEÑOLAZ.....
GOGO ARTZAIRIK, ARTZAI LAGUNIK
EZIN ARKITU IÑOLAZ.

--------

..... ..... .....
..... ..... .....

--------

ASTUR URIKO ARTZAI BERIAK
EUSKOTAR SEME DIRUDI.....
EUSKAL-MENDIAN JOSU GAZTEAK
EZ OTE ZIGUN EBATSI.....?

--------

BA'DEK ORAINDIK GIZON OSPETSU
EUSKAL-ERI ARTZAI ARGI.

# UMEAREN SENTZUNA...



Ba'degu euskaldunok esaera zar bat."Umearen sentzuna etxean entzuna".Ora bertan,Mani ta giaŕa degu benetan esaera au.

Jatoŕis dagokie gurasoai umeen ikasbidea. Gurasoai dagokie aur soña asitzea,ta beren esku dute gogo asitzea ere.

Lateŕia baño lenago du sendiak eskubide ori.Lateŕirik ez zanean ere ba,bere gaiñ zuten gurasoak aur asibidea.

Oñaŕi ugaririk ba'dio eskubide oni XI Pio'k "Divini illius" idastian.Anek guziak gezur jota ere;oñaŕi anek guziak lur joko ba'lute ere,gurasoen eskubideak zutik lirauke."Umearen sentzuna etxean entzuna" egi ba'da,alper-alpeŕikako degu gurasoen eskubide oŕi lur-jo eragin naia.

Ekin daiogun eskubide ori ito naian;al ba'da,egin dezagun oñaŕiai lur-jo erastera;ta asibidearen beŕen-izatez berak ekingo dio orduan gure aurka oiñka.

Eskubide oŕi guk ezetzkoa emanaŕen,umearen sentzuna etxean entzuna daike beti.Etxekoak eta gurasoak dituala maxurik jatoŕen aitortuko digu umearen sentzunak.Eta egia egi,guraso-biotzak laster nabariko du baŕenean egin beaŕa ta eginbeaŕarekin eskubidea.Etxean ikasiaren sakona sumatzean,auŕai ongi erakutsi beaŕa bereala nabariko dute gurasoak.

"Umearen sentzuna etxean entzuna".....Ez det uste egi onek agerbiderik bear duanik.Zabal begiak,sefots adimena,astertu edonun nabari dana:guraso sintzoak seme sintzoak,guraso naŕasak seme naŕasak oi dituzte.

Zeintzu egin bear leporatzen ditie asibideak gurasoai ?.

Esanak esan,ez ditizut,irakurle,ikastolak azten.Gogoan ditut.Baña umeekiko eskubidea gurasoak emana dute auek,eta auen ikasbidea ez da gurasoena bezin sakon.Emen dizuketana ikastola ta ume-azitzen diar duten guziai dagokie;baña aur-asitzea gurasoai bait'dagokie berez, gurasoetara joko det.

Zein egin bear bada, bada, gurasoak aur azibidean?.

Argitzekoai argi lenen.

-------------

Jator baño obeto dagerkigu XI Pio'k azibidea.

"Bear bezelako gizon izaten erakustea da gizona azitzea. Azken elburua eskuratzeko bizibidea erakustea". Egi borobila bertan XI Pio'k.

Galde akiozute zeron buruoi. "Umearen ondo azia" diogu sari askotan. Zer dala ta baña? Jakintsu al da?, Ez. Askotan erdi totel. Bakoitzari berea ematea degu askotan ondo azia izatea. Nork bere buruari uko egitea saritan.

Gizonaren ondo azia....Zer dala ta? Baruko aal eta indarak ondo mendean dituanari diogu ondo azia. Baruko aal eta indarak zuzenbidean ondo sartu dituanari.-

Aita Rutten dizut orain gogora, irakurle. Ikastera dijoan batek ostatu bat aukera dagi, liburuak erosi, ikas-mai ta bear dituanak eskuratu. Baña guzi auek gero maxu edo dalako izatearen. Elburua du ikasleak lan eta neke guzietan gogoan. Elburuari egoki ez dagokiona, bastera.

Aita Rutten'ek gizarte gaietan zion au, egoki dagokio gure beste gai oni ere. Badu gure bizitz onek elburu bat. Gure bizitz au biziaren, bizi bear degunaren, zati bat da. Eta bizi-zati onen egin beara urengoa eskuratzea.

Jainkoarengana jotzen du etengabe adimenak; Jainko-maitasuna irikitzen du naimenak. Aien gose-egaria ezin ase dute bizitz onetako soro-ituriak. Lauso degu adimen eta zikin dakus Urtzi. Loitu ta lizundua naimen, eta lokatzetan bizi bait da, lizun eta zikin izango da beti.

Beste bizitzak aseko dio gure gogoari bere gose-egaria. Beste bizitza, beraz, guk elburu. Beste bizitzari, Jainkoari dagokion bizibidea dagokigu, beraz guri, bizitz onetan. Ikaslearena dagokigu guri ere.

Edo ikastera, edo sorora, edo lantegira, edo zernaitara goatzela, elburua bear degu beti begietan. Elburuaren arauz bizi bear degu.

Umearen zentzuna etxean entzuna.....Ora argi gurasoen egin beara. Ez da umearen azibidea betebetekoa izango, elbururik ezagun ez ba'du ume orek.

Uzkurtza jakin erazi bear zaio lenik lenen aurari.

Ikasleak maxu izatea, ta gusiok Jainkoa degu elburu.

Uzkurtzak erakutsiko digu bakoitzari berea ematen; uzkurtzak baruko sal eta indarak zuzendubidean sartzen. Uzkurtzarik gabe ez da zuzenbiderik eta. Uzkurtzak, elburuak erakutsiko digu bear bezelakoꭓ izaten. Bear bezelako izate au, elburuari dagokion ala ez da ta.

Zein egin bear leporatzen ditie, bada, azibideak gurasoai?.

Esanak esan eŕex jakin genezake.

Amaikagaŕen Pio berberak digu: "Ez da azibidea bete-beteko izango, kristau azibide ez ba da. Kristo jaŕi digu Jainkoak beste bizitzarako bide bakar eta Kristoren arauz izan bear du bizi-bideak.

Ona argi asko gurasoon eginbeaŕa. Umeak azi bear dituzte, baña azibide oŕek Kristo du jo-muga.

Kristorik izan ez ba'litz, beste jo-mugarik izango genduan. Baña Kristo Kristo danetik, Bera degu jo-muga, Bera elburu; ta azibideak Kristorengana eraman bear gaitu. Ona, irakurle, gaur gogoan nizuna garbi esan.

Auŕari azibidean lenik lenen Kristo biotzera bear zaiola, alegia.

Eta Kristoren ordeako Eleiz Ama ta Aita Santua bait'dira, auen esanak aditu bear ditugu.

Egi biurtuko al da ipui au.

-----------------

(Jaŕaipena)

Minberatu zait nere biotza,
muñeraño sar gezi zoŕotza
poz-txertotik oñazea ser.
Gau zakaŕak neregandu zigor;
ene Jainko.....zure laguntza igor,
arindu nere oñaze-lor.

-------

Ardi galduen bila joan nadin.....
Nere gogoa ara bait'dut ega-min.
Bañan....bitarten Kristza
erki ba'neza, Jainko garbi,
ikus bezat, otoi, Zeru-argi:
argi ezin-itzal zoŕotza.

A M A I A .




## Bizidunen aldakerak Jainkoaren izatea adierazten al digu?

Gaur arlo oni buruz det itzaldi. Galde dagiegun asko gizonei ta iritzi ez berdiñak didorogus. Kistar katolikuok bide asko ditugu Jainkoaren izatea adierazteko. Bizidunen aldakera da oietariko bat. Bañan aldakeri-zaleak or ditugu egi ori uka egin naiean. Oiek gauz guztiak aldakera bidez adierazi nai lituzteke. Gizon, abere, ta bizidun oro aldatu egiten dirala; ez dutela, beraz, elburu berezirik dasaře. Elburu berezirem bat ba luteke, ez lirakela aldatuko. Aldatu egiten dirala, ordea, ta bizidunen aldakerak ez dágula, beraz, adierazten Jainkoaren izaterik.

Ořela mintzatzen zaizkigu aldakeri-zaleak. Jainkoaren izatea ukatu nai ta bizidunen elburua uka egin. Ortarako aldakera dute oñaři; oñaři louna benetan. Bizidunei buruz ez bait da egi aldakera.

Ikus bestela, bizidunen aldakera ori; abereena, adibidez. Bein ere ez dakuskezute bi abere berdin-berdiñik; naiz senidez izan, beti izango dute ez-berdiñen bat.

Egi da, bai; abereak asko aldatzen dira gaztetandik asi ta zartu bitartean. Bañan mugaři estuak ditu aldatze ořek. Oso azaleko da aldatze ori. Ezer ez dio kentzen abereen izakera ori, ez erantsi ere.

Aberea abere da beti ta abere izango ere, bere izakerak ala eskatzen bait dio. Beraz aberetik datořena, abere izango da beti. Gizonetik datořena, beřiz, gizon beti; ta aldakeri-zaleak dioten bezela, gizon eta abereak ez datoz sort-oge batetik. Begira zenbaterañoko burugabekeria aiena.....

Gizonaři buruz oraindik gezurgařiago da aldakera. Sortzetik ilobira arte asko aldatzen da; ori egi da. Zazpi urtetan ez bezelako arpegia dager emezortzitan, ogeitan ez bezelakoa beřogeitan.

Bañan adindun da beti, yare beti, gizon beti. Bere adimena ere asko aldatzen da. Aurtzaroan argi-izpi metelak dagerz; gizaroan, ordea, ain da beste.....yakintz-bazo ilunean barna dojoakigu gure adimena, aren izkutu ondarak bapen-miñez. Garai oretan adimen zorotza du gizonak, eta aren bidez len ezin zituan gauz asko, orain adinpetuak ditu. Bañan (udazkenean usoak antzo) egoak zabal iges dagite urte urdiñ oiek eta gizonak ezari du oña zartzaroan. Birumetu zaigu gizona; lengo adimen zorotz ura kikildu ta dauka.

Oroimena ere itzaltzen dijoakio. Bañan alaz ere bere arazoetan ez da jokatzen olde utsez abereak bezela; gizon bezela jokatzen da. Adindun izaki ta adindun izango ere bere barenean gogoak dirauño....gogoaren emaitz bat baitá degu adimena. Gizon, abere, ta gañerako bizidunetan ba dakuskegu zenbait aldatze, bañan oso axalekoak dira aldatze oiek.

Bizidunak oro ez datozte beraz muata batetik. Aldakera ez bait da egi bizidunei buruz.

Bizidunen aldakera egi jota ere, aldakerizaleen erabakia ez da bidezko; bizidunak ez dutela elburu berezirik, alegia. Aldi-igarotze bakoitzari elburu berezi bat ematen diote; aldakeraren agerpen bakoitzari ezin eman al dezaiokegu elburu berezirik?. Nik baietz uste; batari eman bear ba diogu, baita besteari ere.

Beraz bizidunak ba dute beren elburu berezia. Gañera Jainkoak egiñak dira ta, Jainkoak gauz guztiai elburu berezi bat ezartzen die; bestela ez bait litzake Jainko. Beraz bizidunak ba dute elburuak.

Ba da Jainkorik; Bere morroi gera gu, ta oregatik men egin bear diegu Bere aginduei. Ez aldakeri-zaleak bezela, Jainkorik ez dala ta, yare dala, beraz, gizona bere buruak eskatzen diona egiteko. Zilegi zaiola gizonari bere griña lizunen atsegin-osiñean murgiltzea. Aien burugabekeriak ortxen du etena. Bañan ori ez da gizon bezela jokatzea, abereak bezela baño.

-----------------

# EUSKO LANGIL̃EN



Lagunartian bizi izan da beti gizona. Lagunarteko da berez gizona. Edesti-aur̃e-ikasketak antxiñako gizonak alkar̃egaz bizi izaten zirala diñoskube. Gaurko egunotan be gizonak lagunartian alkar̃ekin dakusguz. Zer dala ta ori ?.

Gizonak elburu bat ba'dau ludi onetan; baña elburu ori ezin dau lortu berak bakar̃ik; or̃etarako beste gizonen laguntasuna biar-biar̃eko dau. Or̃a or, ba, zer dala-ta gizonak alkar̃ekin dakusguzan gaur egunian. Lagunarte edo batzar̃etan alkartzen dira gizonak. Batzar oneik era askotakuak doguz. Guztiak langilea euren batzar̃etan batzar-tutia nai dabe.

Lantxu onetan gaur eguneko batzar guztien aitapena ezin dogulako egin, bakar̃ik Gizartekeria ta Eusko-langile-Batza aitatuko doguz.

Gizartekeriaren oñar̃i ta bizi guztia Karl Marx'en idaztietan didorogu.

Ona emen, beste gauza askoren artian, zer dasakigun Marx'ek: "Ez dau izan biar gizonak ezeren jabe; gizona later̃iari dagokion tresna bat bakar̃ik da ta ezer jan gura ba'dau later̃iaren ardurapian iraun biar dau lanian."

Lur̃eko ondasunak gizartean txarto banandute dagozala-ta, beste era batera banandu biar dirala diño gizartekeriak. Ludiko ondasunen jabetzea gizonen artian bardiñ ezin dalako banandu, ondasun or̃ein jabetzea gizon bakoitzari kendu ta gizarteari emon biar jakola diñosku gizartekeriak. Ondasun guz-

tiak gizartearenak izan ezkero, gizon guztiol ondasunetan be bardiñak izango ei gara. Oŕa or, labur ba'da be, gizartekeria ren asmurik nagusienak.

Aske izateko egiñeban Jaungoikoak gizona; ta bakaŕik aske izan da lortuko dau gizonak ludi onetan zoriona. Azkatasuna, baña, kendu egiten deutso gizonaŕi gizartekeriak; eta azkatazun barik gizonak ezin lortu ezetara be bere zoriona, bere elburua. Zoritxaŕez langile asko jausi dira gizartekeriaren atzapaŕetan.

Ez da aŕitzeko be; gizona beres da atsegin-zale, zorion-zale. Zoriona eskeñi egiozu gizonari ta or dozuz itxumustuan ainbeste ta ainbeste gizon zorion bila.

Orixe jazo da gizartekeriakaz be. Zoriontsu izateko bidera dei egin dauśo gizartekeriak langileari; baña zoriona aurhitu biaŕian langile gaxoak asaŕia, buŕukia ta zoritxaŕa aurkitu dau gizartekeriaren atzapaŕetan.

"Gizartea gaxorik dago; baña gizartekeri-zaleak dakartsoen osakaia gaxoa bera baño be txaragoa da" diño XIII Leon Aita Santuak.

Eta Eusko-langilea?.

Beste gizon guztiak lez, eusko-langilea be zorion bila dabil. Zorion egaŕi bait'gara guztiok.....Nun itzali, baña, zorion-egaŕi ori ? Zein batzaŕetan ?.

Zoritxaŕez gizartekeria asko zabaldu da gure eŕietan. Tamal aundia benetan.....Ez bildurtu ta atzeratu baña, eŕegaitik. Ba'dogu gure eŕian gizartekeria baño indar aundiago daben beste batzar bat. Batzar ori Eusko-langile-Batza dozu, irakurle.

Eusko-lengile-Batza.....oŕa or gure langile gaxoa zorionera eruateko bide bakaŕa. Eusko-langile-Batzak eta Kristoren Eleizak irakaskintza bardiñak dabez. Bijak langilea zorionera eruan nai dabe; ta gañera zorion ori lortuteko bide eŕes eta egokia agertzen eta neke ta eragozpen guztiak kentzen alegin duten dira.

Langile-alkartasuna ta euzko-anaitasuna dabe ikuŕin. Oŕa or gure langileentzat bere biziko batzaŕa. Eusko-langilea Batzar oŕetara eruaten guztiok alegindu bear gara; apaiz egindakoan batez be. Gizon bakotxak zerbaiten jabe izateko ma eskubidea ba'dau; baña luŕeko ondasunen jabetzea orain dagon baño obeto zabaldu ta edatu biar da. Orixe irakasten dausku Kristoren Eleizak eta Eusko-langile-Batzak.

Ekin, ba, ta zabaldu Eusko-langile-Batza.....




Tximist-indaŕa acin ziar.

Biziduneī era askotato goraberak sortzen dizkie tximist-indaŕak. Jovean de Coermelles jakintsu ospetsuak bere lan sakon batean dagerkigunez gaŕamtzi eundiketzat jotzen du ikaskei ori. Nantes'ko sendakintz-ikastolan buru egiten duan Stephane Leduk'ek 1902'ko Irailian tximist-indaŕak abereak sorgortuta (anestesia) uzten dituala zion, Bernan "Electrologia, Radiologia Nedica" ko "2" ga batzaŕian. Oŕetarako era bateko tximist-indaŕa darabil. Eta tximist-indar oŕek segundoko 150'tik 200 etenaldira bear ditu, 12'tik 30 woltaki bitarteko indaŕa, ta 2'tik 10 milianpereki.

Tximist-indar onen alderdi bat (énodo) lepaezuŕean, eta beste alderdia (cátodo) biskar gañean ezartzen ba'diogus abere bati lo-zoŕuan bezela gelditzen da bereala; ta nai oŕatza sartu nai aiztoakin zañak ebaki abereak ez du zirkiñik ere egingo.

Ona emen abereak eŕez iltzeko era.

Leduk'ek ikaskai au bere buruari eragin zion; andik laster lo-zoŕuan jaŕi omen zan gure Leduk. Baña lagunak oso beldurtuta, il etzedin kendu egin zioten.

Gaur Orleans, Paris'ko Villete t.a. 'etan onetara iltzen dituzte bei, idi, txaŕi, ardi, adari, t.a. Itz batean lenengo sorgortu ta gero odol-ustu.

Amalau-amabost urteko mutil koskor batek egin leiken gauza bat izan eta zertarako txaŕi bat iltzeko ainbeste gizon?.

1932'ko Azilaren 8'an ikaskai onek Jovean de Courmelles jaun ospetsuak azaldu zituan Societe de Patologie comparee deritzaion alñizkingian. Geroztik Rottschild'en eritegiko sendatzalea ospetsu Hertz jaunak aberea ez dala sorgortzen dio; erbaildu baño, ta oŕegatik aiztoa odol-usteko sartzen zaionian

ez duala zirkiñik ere egiten baña bai miñ artu.
Ofa or auzia.
Courmelles'ek dionez, sorgofa da geienetan, tximist-indafak ildako gorputzetan dakuzgun bezela.
d'Arsenal irakasliak onela dio: "Tximist-indafak era bitara kentzen die bizia gorputzei. Kirioak gelditnaz batzuetan, gorptuz guztia zatitu ta ezer-eztnaz bestetan."
Ikarak ez dute ezer esan nai.
Ildakoeri ostikada edefak eman erazten dizkie.
Guk zein iritziri jafaituko diogu bada....?
Ekafi dizudaz naiko gertaera, sorgortuta gelditzen dala ikusteko.....

## Iràsofa (hipnosis)

Ifasofari burùz zer edo zer esatera natorkizu, irakurle Idazti-gai polita, atsegiña. Beste gauza askotan bezela, utsune asko dakuskezu emen ere....Ez bildartu baña. Jakintsuen atzetik ibiliko gera.

Eta beste gabe irasofak dakarzkin gorabeerak ikusi ditzagun. Indar geiago, ona emen gorabera bat. Nollék ederki azltzen digu au: "Besó zabalik egon bear dezu, nik esan arte, agindu nion bein irasofi bateri. Bai al dakizute zonbat ordu egin zituan? Sei ordu oso. "Young'ek, berriz, sellu bat ipiñi zion begi aurrean beste bati. Zeñn dan ezagutzako al zenduke? galdetu zion gero, beste ogei sellu artean nastu ondoren.-
Bei, auxe da.....Erdi erdiz asmatu zion.
Paper txuri-txuri bat artu ta irasoriari erakutsi dakiogun. Begira, nere argazkia dezu au. Beste paperakin nastu dazaiogun gero. Zazpitik bestetan asmatu baietz. Ez dago emen iñungo sorginkeririk. Paper bakoitzak berarizko ezaugafiak dagerkuz. Ezaugafi oiek buruan artu besterik ez dagi irasofiak. Paper ofen argazkia atera ta.....berdiñ-berdiñ. Paperean ikusi zituan ezaugafi aiek berak agiri bait'ziran argazkian ere.
Bergson'ek ere gai oni buruz zer edo zer ba'darakuzgu. Amatslarkamafa deritzait baña. Bergson'ek dionez, begiak itxita ere, ikusi leike irasofetan (en la hipnosis).
Jakintsuak mikroskopioz bakafik dakustena, begi-

utsez ere ikusi dezake irasoriak.Kartoi ta ispilua,biak bat beretzat.Garbi-garbi bait dakuske kartoiean ere arpegia.

Preyer'ek,beriz,ezetz dio.Irasoretan dagiguna esnai gaudela ere egin dezakegu.Adipena (atención)zoroztu bear....

Oriömeneraño ere sartu liteke irasora.Irasoretan ikasia nekezago aztutzen da.Lau abesti erakutsi zizkion Lenk'ek gizon bateri.Bi irasor aurretik,eta irasor zegoala beste bi.Iru urte ez ziran oraindik igero,ta bi bakarik zeuzkan gogoan.Irasoretan ikasiak biek.

Naimena ere irasori ote leike?Nancytarak baietz zioten.Agindutako guziak egin bear du nai ta naiez irasoriak.Norbait iltzeko agintzen ba'diote,norbait ilko du.Agindu ori ezinperatzeko ez da gauza.

Charcotarat,beriz,beste uste bat zerabilkiten.Jakiñen gañean iñor ezin il dezake irasoriak.Su-ziskilua zergatik artzen du eskuetan?.Utsik dagoala ba'dakialako.Edena ere oregatik damakio inguruko gizonari,gezurezko daña bai bait'daki.Ora Charcotaren iritzia. Egi izateko,ordea,moztu egin bear.

Irasoriak azkatasun osoa galtzen duala esatea,gauzak begi luzegiz ikustea izango da.Baña beste muturerañe jotzea ere bai.Egia zeñek ote?Erdian,irakurle,erdian.Norberak nai ez duan egikizunik ezin egin erazi dezaiogukela,darakusgu Bramwell'ek. Eden-izenean azukrea erakutsi ta norbait iltzeko agindu daiogun irasoriari,Zintzo beteko du gure esana.Orixe egin zion Bramwell'ek irasori bateri:lapureta au egik,eman zion gero.-Ez,ori ez.-Edena artu arazi akiok, bada,gizon oni.-Kaltegari dek,ordea,orainGo agindua....

Bramwell'en iritziz,beraz,beste edozein bezin naimendun eta aske degu irasoria.Moll'ek,beriz, erdi-loturik degerkigu irasoria.Neri ere iritzi au deritzait egokien.

Ez dituzte agindu guztiak berdin betetzen irasoriak.Lan auetan diarduten orok dasate;"bere izakerari ez dagokiona oso nekez egin erazi dezaiokegu. Geienetan berak naiduana dagi".

Ikustekoa izan bear du......Onelako zerbait agintzen zaienean,esnatzeko seskatzen omen dute aren eta aren .

Irasori,sustraia aztertu dezagun orain.

Nekeak sortzen duan eden-bilera dakar Freyef'ek irasori
sustrai. Egi ote?.Ezetz dirádi. "Esna adi",deadar au nai
da irasoria esnatzeko. Itz onek zer ikusirik izan al dez
edenarekin?.

Zuzenago degu Wundt'en iritzia:utsune guztiak ez
ditu betetzen baña.Soin-era beriak(transformacion fisio-
lógica)sortzen du irakora.Ederki esana.Nolakoa degu,orde
soiñ-era ori?.Nolaz datorkigu?.Iñork ez du arapatu oraindik
erbia.



# AZTIKERIA

Zer da aztikeria?Sarritan eto-
rri jaku gogora aztikeria.Baña zer
dogu geienetan?Maiak jiraka,lu-
rratik berez igotea,uriñeko gauzak
iragartzea...Aztikeria entzuten
dogunean geltoki ilun bat argi
gorriekaz apeinduta eta an...gau-
za arrigarriak...iruditzen jakuz.
auxe da gaur eguneko aztikeria.

Baña eztautzuet nik ori gaur azaldu gura.
Antxiña be ba'ziresn sorginkeri oiek ta inbeste apaingarri
treene barik baña.Aztikeri onen jatorria azaldu gura deu-
tzuet.

Guazen ba arlora.Era bitako indarrak dira
ludian diño King'ek;gogo-indarrak(gizonen eta abereennak)
eta gauz-indarrak.Arimakeriak dauko sustraia lenengoetan,
aztikeria edo magia datorgu bigarrenetatik.Bijak naste
kuzguz,baña askozaz be antxiñagokoa da aztikeria.

Begiratu daiogun,baña,gizonari.Ez-jaki
degu oraindik gizona.Baña...gauza arrigarriak ikusten a
da.Lenengoz trumoia entzuten dau eta bildurtu da...Ez
arritzekoa be...

Baña gauz barri oietatik onek dira batz
txarrak ostera beste batzuk.

Gauz onak maitatzen asi da;txarak,barriz,bildurtu egiten dabe.Ortikha,itxaropena edo gurariA ta bildura.Bildura izaten dau geienetan.

Zelan,baña,zoritxarok aldendu ?
Ezta adimen zorotza bear.

Baña oraindiño ezta agiri aztikeririk.
Apala dogu oraindiño gizona.Jazokun oneik makurtu baño eztabe egiten.Baña itxaron apur baten.Adimenduna da gizona,ta adimen oregaz aurerapen aundiak egin ditu.
Eizaeizkiln ta tresna abar be asmau ditu.Abereak eurak be eztabe bere etzamaretatik iesaik egiten.Dena al-deuela deritzaio.Ora,bada,gizona aro.Egindako aurerakuntzak,abere guztiak bere oñetan ikusteak ez dau biar dan beste asetzen.Gauz-indarak,izadiaren indarak eta gizona bera be menperatu gura ditu gizonak.

Zelan lortuko baña ?
Ikusi daigun zein iritzitakoa dan gizon au.Irudipenez alkartuta daukoguzan gauzak,izatez be alkartuta dagoz.Naikoa da,ba,batari ziri egitea,bestiari be eragiteko,diño aztiak.Abere bat atrapau gura ba dogu,esato baterako,arian bere irudia margoztutea baño ez daukagu.Laster geuganatuko dogu.Euria gura ba dogu ur apur bat artu ta gora batatea naikoa da.Areriorik ba daukagu,bere irudia margoztu ta berealaxe menperatuko dogu.

Eztabe oneik gogorik eta siñesten;
gagoak be dira be,eztabe indarik.Indar guztiak gauzetan dagoz.Baña ezta lenengo-lenengotik onan izan.
Vierkant'ek diñonez.Aztikeriaren asieran oren ziur eztaki aztiak gura daben guztia lortuko duanik.Tsamankulu edo izkilua eskuan edo berekin daukan artian,bai;baña bein eskutik aldendu ezkero beste ez-ezaguneko eztakit zein indar bitartetuten diran,eta gauza oren indara bardindu egiten dabe.

Eiza-izkilu ta suakin jazoten da batez be.Izkilua jaurtin eta aberea jo arteko une oretan egiten dabe euren oker-lana,ez-ezauneko indar oiek.

Etzan lenengotan orain lez azti-bazkunik.Gizon bakoitza zan bere aztia.Gerotxuago bat edo bi ikusten dira eri bakoitzean.Areikana doaz danak.Ba dakigu zenbat aureratu daben gure egunetako/ sorginkeriok.Esan dogunez arimakeria baño antziñagokoa da aztikeria.Baña beste auzi bat daukagu oindiño,garantzi aundikoa.Aztikeria ala uzkurtza zarago ?

Beste bateanr eri

# ERI-SIÑISTEAK



Eŕi siñistiak, irakurle. Zenbat onelako ez ete dira zure eŕian. Amaika olako siñiste be da izan be gure eŕietan. Apurka-apurka aztuaz duaz. Sarrikoz bi edo iru agertu nai neuskizuez. Lenagoko garaietako siñisteakin zer ikusirik daben azaldu nai neuskizue.

1ª. Umiari begizkorik iñok ez dakion, kutune ipiñi bear jako papaŕian. Kutuna zer dan ba dakizue. Euzkadi'ko eŕi askotan izaten da kutun. Beste batzuetan agiña.

Pañeolitos garelan erabiltzen ebezan oŕelako tresnak. Adu oneko izateko eruaten eben kutun ori. Basurde-eizan tiñu edo zoriona izateko basurde-agiña eruaten eben.

Ori oŕela dala, oreatik jatorkun oitura ta siñistea ete dan esan geinke. Kistar-etze dau nere eŕian siñiste onek. Umiari begizkorik iñok ezin ez dakion Ebanjelioa ipiñi bear jako. Itun-zar edo baŕiko izki batzak ezarten deutsez. Zoriontsu izan daitezen, sare ta trein askori jartzen deutsez kutunak.

Siñiste onek aspaldiko sustraiak dituna argi dago; baña kistar-kutsua dabenik ezin uka.

2ª. Jon Deunaren egunian be ba doguz ekerdu berezi batzuk. Urtero lora ta bedar txortak jartzen dabez balkoi egaletan. Txorta oŕeik tximist eta odeiak uxatzen ditubez.

Indoeuropatren gogoa onelako siñistez beteta egoan. Orduko edo aren gogoa ez al dogu aldatu ?. Ezatz dirudi. San Juanetan agiri izaten da beintzat.

San Juan bezperako suak; ainkako miña osatzeko, su onen gañetik igarotzea ta beste oŕelakuak ordukuak ditugu. Txortak balkoian ipintzia be, ba, garai ontakua dala esan geinke.

Kister usaña artu dau orain nere txokuan. Jon Deunaren egunian onestu egiten dabez lora-txortak. Balkoiean onetsitakoak ipintzen dira; bestela ez dau tximistaren aurka indaŕik izango.

3a.Gipuzkoan ez dakit,baña Biazkaian ba'degu beste oitura ta siñiste zar bat be.

Azkenengo ogieri laurden bat kentzen dautsegu gabon zar egunian.Iru edo lau gurutze egin eta gorda egiten da gero.Zetarako gorde?.Txakur ainkada ta eřelakuak osatzeko,batzuk diñuenez.Beste batzuk,baña,asaba ilen gosea aseko daula uste dabe ogi ořek,ta erike gaitik gordetan dabe.

Nundikoa edo noiakua dogu au?. Ez dakit,ba.Eneolitos garaian bizitzan maite izan ebazan gauza jartzen eutsoeźan ilei.Orduko beste siñista bat ba'degu.Biziak eta ilak argia bear dabela ta ořa gure eřiko argizai-ola sortzea.Eneolitos garaikua ez ete da?.Ezetzik ez neuke esango.

Ez dira galtzen beriala siñiste oneik. Eřiaren biotzian sartuta dagoz eta....Baña lengo bietan bezela kistartasunak ikutu egin deutsa.Ezaugaři?. Ogian egiten diran gurutzeak.

Eři-siñiste askokdute kistartz au.Ondo dago?.Txarto?.Nik dakitena ta nire ustia orixe da.



Joxe Luis



Udabariko aratsalde eder bat da.Eguzkia sarkalderuntz ariñ ariñ doa.Langilleak,egunereko lanak alde batera itxita,ordoaz, batzuk euren etxeetara,geienak ardangaletara.

Goazen orain Bizkaiko eři txiki batera.Eleiz ondoan dagoan ardangelara.Sartuta askumaldian zortzi edo amar gizon ikusiko doguz maian jesarrita.Enbido"ta "ordago" diardue.Apal ordua etzan oindiño ta zer edo zer egin bear.

Gořř-gořri egozan danak.Lartsu edan eta... ben be,egiten eban eta...

Elduzan apaltzeko ordua,ta kartak alde batera itxi ta,apaltzeko gertatu ziran danak.Lengo zarata ta o dagokedan ordez itz garbi ta alaiak

esaten asi ziran. Apari-zain egozan artian eldu ziran palta ziran beste bi ere; eta berealaxe asi ziran alkaŕi ziŕika:
Kaxo, Joxe Luis, eta konpañia; nun egon zarie orain arte ?.-
Zuek bezela bizi ba'nitxok, aspaldi emen nintzuan, baña....,
erantzun eban.-
Txarto bizi az ala ? Ezure zilbotari begeratu eskiñako, txarto bizi azenik alaukek iñok esango.-
Txarto ez, baña.....lan geiegi jankat.-
Gose galanta eukiko dok, ba, oŕenbeste lan egin ala. Tirok.
Jaŕi adi aguro.-
Bai ta posik gero. Baña nun jaŕiko nok ?.-
Ator nire ondora.

Apaltzen asi ziran; ederto gero. Aŕain, aragi, bildots ta eztakit zer geiago. Aragia eldu zanian, Joxe Luis'ek bere asaŕia agiri eban:
-Zer dok ori ? aragia ? Nai dabenentzat.
-Zer dala ta eztok nai ?
-Ildako beiaren aragia dalako.

Danak asi ziran baŕeka. Ildako beiaren aragia-iñuen-ák bai uste.

Oŕetara baŕez eta pozik amaitu eben aparia.

## II

Zortzi egun etziran igaro, ta Joxe Luis'ek etxian eukazan iru txaŕietatik bat il eban. Egun artako goiz aldian, etxeko atian egoan urdai zati bat jaten. Eztakit zelan eldu jakon lagun bat eta:
-Kaxo Joxe Luis, zer diñok, ba,?
-Emen najagok, gaur goizien il dogun txaŕiaren txatal bat jaten.
-Etxagok txarto. Baña ildako txaŕiaren urdaia jaten ?.

Ezeban beste esanik bear izan. Amoŕuz beterik jaurti eban auŕeko etxe ormara. Egia dok-esan eban-ildako txaŕiaren urdaia dok .

Aŕezkero gure Joxe Luis'ek ezeban jan ez urdairik, ez aragirik. Luŕeko gauzak bakaŕik jaten ei ebazan.

-----------------------



# SAN-PEDRO ATXAŔE

Oitura bat.

Argitaraldu doguzan aldizkingi guztietan azldu izan dogu eŕi-oituraren bat. Eŕitaŕen biotzak eta gogoak oitura bidez eŕez e-zagutzen dira.

Zeñen argi, garbi eta txu-kunak eusko-oiturak. Euretariko bat azaldu gura nik.... Bear dan eran egingo ote dot ? Al dodana egingo dot. Utsak asketsi.

Joŕailaren ogietabostgaŕena da. Goizean goizetik kanpoiaren txigilin txangua entzun oi da egun onetan urtero nere eŕian.

"San Markos"en letanie"deitzen dautsoe-na urtengo da gaur nere eŕi oŕetako eleizatik. Irugaŕen aldiz jualearen otsa entzun, eta bereslexe no intza aun di batek urtetan dau eleizatik, mutíl gazte bat ikuŕi-ñagaz buru dala. Abadea be an doa. San Pedro Atxaŕe de-ritxon mendi erpiñean dagon basa- eleizara doaz. Uŕun xamar dago. Ordu bi inguruko bidea. Bidean zer egiten daben ? Aŕantzak esan. Basa-eleiza naiko uŕen izaten danean, bertoko juale zaŕaren kiŕin eta kaŕanak "omen nago ni, omen nago ni " esaten dagoala niñoke. Gora el-du ta ikuŕinduna lenengo dala basa-eleizari bira bat emoten dautsie guztiak, eta baŕura sartzen dira.

Jaupa amaitu, ta inguruetara begiratu..... Egiz ikuzkizun ederak agiri dira andik: itxasoari muñka Ber-meo ta Mundaka; itxasoaren erdian Izaro aŕo aŕo. Suka-ŕieta, Busturi t.a. uŕe uŕean; bira-erdi egin eta Ibaŕan-gelua, uda ta negu txoko atsegingaŕia.

Goian aspertutakoan apurka-apurka landa zabal batera jasten dira danak. Gozaldia an e-gon oi da. Zelako gozaldia?.

Txori-txiki bategaitik nai ala ogi eta beste zer edo zer e-
mon oi dabe. Baita basa-elaizan abadeak onetsitako gatza be;
an emoten dabe. Gatz ori uretara bota ta ořa or ur onetsia.
Ur ořegaz soluak eta baratzak eta abar onesten dabez.



Gure Jaupalgotza.

(Tanquerey'ren "Notre Sacerdoce"'tik euskeraldua.)
3ª Josuk bere buruba eskeintzen dautso Goiko Aitari.
Opagai-eskeintza. (Jařaipena)

Opagai zan eta opagařari egokijonez, amaika jasan eban ogei ta amairu urteren-buruan, Erdainkatz-egunean ixuri euzan lenengo odol-tanteak. Gu gaiskatzieřen gusti-gustija, be, posik emon eban Golgota-gañian. Atseřira juan zan Heroderi igesi. Biurtu zan Palestina'ra Herode il-ostian. Galileako bastař ospegabe batera zokoratu zan baña. Nazaret'en aukeratu etxe koskoř bat. Esku-lanetan igaro euzan ogetamar urte. Apal-apal gurasuen agindupian bixi ixan zan. Beste edozein arotz baxen apal ta eřikoi zan.

Eřirik-eři ibili zan iru urtietan, be, noxian-bein poz-aldi ta garaipen baneka batzuk, be, bai, baña, etengabeko burukomin eta nekiak ixan euzan. Irakasten asi zanezkero ondoren ebilkijozan Parisaitař ta idazlarijak. Lenengotan ixil-matuka, amořuz sututa gero baña. Josuri zirija selan sartuka, ta Bere irakatsijak zelan guzurtuko edo iñargetuko ebiltzan. Eřitařak Beregandik aldentzia, uxatzia zan oŕein burubide bakaŕa. Obendi nabarmen eta irakasle baneka batzuk Bereganatu euzan Josu'k. Eřitar geřenak baña lur-jota eguan euren eřija goraltzera etorken Mesias aintzatsaa. Irakasle gaste, apal eta otzan a zanik ezeban siñestu nai.

jaramonik bez eztautsen egiten, beste batzuk ostera, ikusi, be, ezin dabe egin. Aundikijak barik txikiak, eru-kari, txiro, obendi ta gaizkiliak dauz la-gun. Jainko-lanetan Aiar-duana ta Jainko-Seme dana ad: erazotiaren ainbat mirari edo alatz egin eta Jainko-Seme danik ezin buruan sartu bere aritarei ta onek ezetsi egiten dabe. Onetzaz aratzen eban Josu'ren bi-jotza.....

Oparen asimasiak baño eztira sasta-de preik baña.

Opagai-Opalkuntza.

Getsemani'ko baratzan asi ta Golgota-mendijan buрutu zan Josu'ren opalkuntza.

Bixija emon-orduko, opagai-antzo dakusku, Azken-Aparija, ba, egizko jaureskuntz dogu. Azken-Aparitako bera-rizko oikunak orixe dagerzkube. Lege-zararen arauz A-postoluekin Paska-jaja ospatu ostian, Paska-jai barij asi eban eta ludijak diraudaño iraungo daben jaures-kuntz barija irazi eban. Ogija artu eskuetan, onetsi ta Apostoluei emon eutsen; "Auxe da-iñotsen-zuben-al-de emon, ukaõi ta zatituteko nire soña".

Eta ardo-ontzija artuta, "Edan egixu be guztijok-dirautse-gixonen oben ordaingari ixuruta ko Itun Bariko nire odela". Bere buruba emon eta uka-ñi dan Josu'k. Eta Josu'ren buru tap odol-eskintze au egizko jaureskuntza da. Odolik ixuriteka eginaren, odo la ixurita egindakuak beste indar dauka, ba. Azkeneko itzak orixe darakuskube. Ba-ekijan Josu'k bijaramo-nian erailko ebena. Bere buruz ta Berak nai ebalako jasango ebazan baña, lor ta samin guztijak eta gure oben-ordaingari emongo eban bixija. Eta eñordeko edo Apostoluei ori adierasotiaren, aurez eskiñi eutsozan ixuriko eban odola ta bijaramoneko opalkuntza Goiko Aitari. Azken-Aparija egizko jaureskuntz da, ba.

Melkisede'k ogija ta ardua eski ñi eutsazan Jainkoari; Josu'k, be, ogi ta ardo antzez edo erazkiz estalduta Bere buruba opaldu eutson Goi-ko-Aitari. Eta Melkisedek'en ariz Josu, be, jaupari da-la orixegatik esaten dogu. Ardo ta ogi eraskiz estal-duta artu eben Irakasliak euren Jauna.

Maza guztijetan bařiztetan dogu azken-Aparija gure elexetan, be,jalde txikitxu bat dogu baña. Bijaramonian Kalbarijo-mendijan opalduko eban opagaye eskiñi eban Jaunak orduan. Mezeñan, ostera, Kalbarijo-mendijan bixija emon ebana opaltzen dau jauparijak.

g) Nekaldiko asteko gertu eguan Josu ta apal-onduan berialaxe asi eban. Berbarak aparitan esan ebanez, guaren ilgo da.

1) Urten eřitik eta Zedron-eřekonduan-ziar Oliomendi-ko basta batera zan. Antxe ixan eban Josu'k iltamua deritxogun gogo-estinda sakaŕa. Bijaramoneko irain ta oñaze guztijak banan-bana eta bixi agertu eutsozan irudimenak. Ikaragaŕizko ikusgaya Josu'k dakusana........ Bat-batera minberatu zan Josu'ren bijotbiguna. Naigabez ta laŕiz goibel dakusku. Bere gain dakus, ba, gixonen oben oro. Gixa-gaiztakeri guztijak Beriak bai'leuz Jeinko Zuzena dakus auŕian. Gogo-samin arek soñeko sanak be uřatu, ausi egin eutsazan. Alderdi orotatik odol-ixardija darijo. Nekauste mingots gaŕatzoi itxi al-ba'legi..... Naigabia gozatzeko poz-bila juan zan ikasliegana bi aldiz. Alpoŕik baña, lotan idoro euzan.

Eskaŕ txaŕeko gixonen oroiz atsekabetuta eguan. Gotzon bat auŕeratu yakon eta iñozko aldijetan Josu'ren eŕaki ixango ziran gixon zintzubek gomutaratu eutsozan. Bijotzoneko gixon oŕen gomutak [illegible] adoretu eban Josu. Eta orain, be, be. Goiko Aitaren nayari men. "Ene Aita, al-ba'legi, Nigana barik igaro beki ontzijau; ez oŕatiño nire oldez, surez baño" (Mat. De XXVI, 29)

2) Geruago ta min aundijaguak. Ikaslietaiko batek, Juda'k, iruzuŕ egin eta arerijuei saldu eutsen bere Irakaslia. Kepa'k, [illegible]bi ikaslien burubak danen auŕian ukatu. Beste ikasle askok, be, eztabe aintzakotzat artu nai. Apaizpuru-otseiñem belaŕondoko ta sapespekuak, be, artuta ta iraiñak, be, miatik berik entzun egiten dauz. Jainkuaren Semia zala iñubalako eŕudun etsi eban Sanedrin-Batzaŕak. Eŕurik ezeŕena ontzat emonaŕen, gurutzaltzeko agindu eban Pilatus'ak. Ondo zigortu-ostian basi-eŕegeari letz arantzazko bureskuna ezaŕi eutsen gudarijak. Kalbarijo-gaĺuŕera juan zen gurutzea erdi-tateŕez ebala. Untze zataŕez josi eikijuezan Berberak zabaldu euzan besuak. ¡Amaika aokada ta iseka entzun ebazan.... Parisaitaŕ ta idazkarijak: "Mesias, Jainkuaren Semia baŕaz jatsi adi gurutza oŕetatik" iñotzen iŕika ta baŕez. Zigortu al-legixen Josu'k. Zer dagijen eztakijela baña, ta askesteko aŕen dagijo Goiko-Aitari. (Luc. De. XXIII, 34) Eukan odol gusti-gustija ixuriaŕen, ba-ekijan gixon asko gaizkatuko etzirana.

(Be-daŕaike)




Urteak uda-neguan daukez, sugaitzak aro bi; onelaxe edestia be iru arotan zatitu izan dogu: Leen-aro, Erdi-aro, te Beŕi- aro. Azkenengo aro onetan bizi gariala esan izan dogu orain artean.

Lau ataletan zatitu geinke aro bakotxa: jaiotza, gaztaŕea, zartzaroa ta eriotza. Aro Beŕiaren zartzaro ta eŕiotz erdian gagozala diñoe ez ainbatek eta aro onen ostean beste bat datorkigula. Zelakoa izango dan aro oŕi asmatzea ez da gausa eŕeza, igarleak banakak baño ez dira izaten-eta. Dana dala, aro aldaketa oŕek ez dira ba-Ba ez ba-da egiten. Gauza guztiak dauke euren zergatia, aldaketa onek be bai. Ez dira, baña, gizonaren naimen eta egiteak bakaŕik aldaketa oŕek dakarguzanak. Jaungoikoak gertarikoak dira saŕitan. Onela zigortzen dau gizonaren aŕokeri ta itsumena.....

Roma ta Grecia'ko jakintzaren azken sotiñak laŕiak izan ziran. Aŕotu egin zan orduan be gizona eta Jaungoikotu egin gura izan eban bere burua. Lizunkeriz bete eban biotza eta luŕeko edertasunari makurtuta eukan naimena. Aztu egin eban Egilea ta oinperatu Goiko Jauna'ren aginduak.

Baña gizonak Jaungoikoagandik uŕun ez dauko oñaŕirik. Geure egikizunen elburu Jainko Jauna ez dogunean, aragikeria artzen dogu elburu. Eta gu, ene irakurle, ezer izan ez geure gogo-naimenak asetzeko; Jaungoikoagandik gatoz eta Jaungoikoa dogu azken; ezin geiñeke atsedenik iritxi lur oneteko ondasunetan; gure saritzat egiñak ez dira, Jaungoikoa lortzeko bidegaiak baño.

Baña Jaungoiko. eŕukio-

ŕa dogu eta Bera naidabenean ,gaizkatzen dau gizartea. Bestela onezkero astüta egoan gizonaren izena lur onetan. Goi-maitasun eta Jaungoiko-bildurge,abereak baño txaŕagoak dira gizonak eta ez litzakez luzarorako;alkar ilko leukez. Jaungoiko-maitasunge ezin geinke maitatu urkoa benetako maitasunagaz.Jaungoikobarik geurekoiak gara eta geurekoitasuna giza-orailea da.

Eŕomataŕen lotsagabe ta itsumenaren eŕuki izan zan Jaungoikoa.Europa-goiko aŕotz bastiak oinperat ebazan Eŕomataŕen ardurapean egozan luŕak eta sustefetik kendu ebezan lotsakeri aiek.

Tamalgaŕia zala,diñoskue ainbat idazlarik,orduko Europa'ren tajua.Eta ziñez zazpi,zortzi ta bederatzigaŕen gizaldian ilunpean juan ziran;onen ostean,baña,agertu zan egun garbi ta pozgaŕia;ludiak ez dau bardiñik ikusi.Gauza asko galdu ziran gizaldi aietan. Nok neurtu,baña,astintze oŕetatik gizadiari etoŕi jakozan egasunak?.Gizonak uskurtzale egin ziran;aidea guztiz maite izan eben.Gogo-bizitza iñoz baño bizi ta gartsuagoa zan; ainbeste ta ainbeste lekaidetxe sortu ziran.Ordukoak doguz Europa'ko Ikastola Nagusi ospetsuenak,giza-batz aukereenetakoak.....Ordukoa Thoma Deuna,Alberto Magno Deuna ta ainbeste gizon entzutetsu ta uskuntzaleak.Langile ta ugazaba artean ezegon gaur añako goi-berik.Gauza asko galdu ziran, egia,baña zenbat on etzan etoŕi ?.

---

Eta gaur gizarteko artu-emonak zelan ete daukoguz ?.Eŕomataŕen aldietako antzean daukogu gaur be gizartea.Adimentiaŕak (rasionalistas)oinperatu egin dabez Kristo'ren irakatsiak eta adimena egin dabe gauza guztien bakaldun. Jaungoikoa gizon egin danik ez dabe siñestuten eta gizona artzen dabe Jaungotzat.Au bai dala benetan zorakeria... Gizona danen nausi ta egile.....Burutik ondo ete dagoz gizonok ?

Baña Jaungoiko barik ezin bizi leiteke gizona. "Jaungoiko gabe gizonik be ez ",diño Verdiaeff'ek.Eta jakiña gu iñok egiñak gara.Jaungoikoa dogu gure Egile ta gure izate-emole.Sustrai gabeko zugaitza laister igartzen da; oñaŕi gabeko etxea be berez jausitzen da.Burugabekeri au egin gura dau gizonak.

Jaungoikoaren askatasunik ez dabe artu gura izan eta gezuŕezko Jaunkoaren jopu egin dira.

Egiazko Jaungoikoa ukatu dabe. Ez dabe baña, askatasunik lortu; Rusia'ko baltzakeriak orixe diñosku. Ez dago egiazko askatasunik egiazko Jaungoiko barik.
Ez dabe egi-bustefirik maite izan, guzuragaz bustartu dira. Adimentiarak bakoitzkeria sortu dau. Gura dabena oldostu daike gizonak. Bere buruaren zilegi-arauak gizonak berberak egin leikez. Jaungoikoaren aginduak, zertarako ?.

Norberak ontzat daukana gauza egoki ta berezia ei da gizonarentzat. Norberari deritxona egiteko aske da gizona batzuen ustez.

Beste batzuen ustez, ostera, zilegi-arauen ituri gizarteko oiturak dira. Gizartea beintzat ezin izan leikela diñogu guk.

Zer da baña gizartea ?.

Gizonak osotzen dabe; gizonik barik eztago gizarterik eta gizon bakotxak zilegi-araurik sortu ez ba'legi, gizarteak bez; aldakora da, ba, gizartea, gizon bakotxa bezin aldakora eta arau irankorik ezin e sortu daike. Ekanduak, be, igeskorak dira.

Eat bakoizkeri (liberalismo) ta gizartekeriaren ondorenai begiratutxu bat orain.
Askatasuna gora ta bera jauka ibili aren, batzartzeko eskubiderik ez dautso emon langileari bakoitzkeriak. Amaika negar egin izan dabe langileak ugazaba zekenokgaitik.

Gizona bere buruaren jabe dala, gizonaren naimenak eta adimenak esetariko lokarririk ez ebala bear eta gura ebana egin eikiala gizonak. Amaika aldiz entzun izan degu..... a

Eta zer ? Iñoren izardiagaz gura adiña diru eskuratu dabe goikoak. Ez aberastu bakarik, lizundu ta lotsabagetu be bai. Lizunkeria ta lotsabakokeria ogasunen ondorenak dira ba.

Bakoizkeriak sortu dau gizartekeria. Bakoizkeriaren loriñak zuzentzekotan agertu jakuzan gizartekeri-zaleak.

Baña onen irakatsiak gauzak aŕentzeko baño nasteko egikiagoak izan dira. Gurasó batzuren seme doguz biok.

Ludiko ondasunei bakarik egiten dautse jaramon. Gogo-ogasunei bagiratu be ez. Bakotxaren arazoa da uzkurtza; gizarteak Jaungoikoarekin eta uzJurtzarekin ez dauka zer ikusirik. (Ba-dareike)



Gizabatz edo gizerteara buruz eztebaidarik naiko sortu zaigu aspaldi ontan. Uste zuzenez batzu, okeřez bestetzu. Egiz batzu, gezuřez asko. Zuzenari eta okeřari, egiari ta gezuřari emen daiogun bakoitzari berea.

Gizartekeri-zale (sozialista) ta liberalak ez dira lo egon. Azaldu dute euren iritzia. Biak, bakoitza bere oñařietan zut, ao batez mintzatu dira. Ona emen auzi oni buruz dasatena: Ela edo atomoak ludia osatzen duten bezela osatzen dute gizonak ere gizabatza. Batere alkar-artu-emangabe. Au bide dala, ez dago gizaki ta lateřia besterik. Gizartekeri-zaleen iritzia lateřai gizonaben gain. Liberalen ustez gizakia lateřiaren gain. Biak baña gauza berdiñ bat dute elburu: gizonak ez daukala gizartean alkar-artu-emanik. Gizartekeri-zaleen asmoak bide, gizaki ta gizartea ere lateřiaren mořoi. Gizonak sortutako alkarge: sendi, gizarte, ta a., lateřiaren mende.

Zuzena ete gizartekeri-zaleen iritzia? Auxe da gizartekeriaren oñařia: gizakiaren gain lateřia; lateřiaren mořoi gizakia. Au dala oñaři, gizakiak berez ez dù ezertarako eskubiderik. Lateřiari on dagokionez bakařik eskubidea. Gizakiak ezer egin nai, ta lateřia auřez jartzen ba'zaio, bego geldirik gizona, lateřiaren mořoi da ta. Gizonak sendia eratu nai, ta lateřiak sendi-eskubideak mosten ba'dizkio, bego ixilik gizona, lateřiaren uztarpeko da ta.

Gizartekeriaren oñařia baña ustela izaki ta oñařà ořen gañean jaso dana ere ustela. Ez dago gizakiaren gain lateřirik. Ezin izan liteke lateřiaren mořoi gizakirik.

Egin-bear eta bear-izan asko ditu gizonak. Bakardadean lortu ezin dituan gauza asko, gizabatzartuta lortu egiten ditu gizonak. Ořexegaitik jo zuan gizonak gizartera. Egin beařak obeto betetzeařen. Bear-izan nai eřexago arpegi emateařen. Bakařean lortu ezin dituan onurak, gizartetuta lortzeařen. Gizarteko alkar-artu-emanez, obeto bizitzeařen.

Batak besteari lagunduaz,al bait goren burua jasotzea-ren.Ortarakoxe eratu zuan gizonak lateria ere.

Gizartekeriak gizartearen moroi egin nai luke gizona gañera."Gizaki baloitza gizartearentzat",ez baña gizartea gizaki bakoitzarentzat.Gizaki bakoitza gizartearentzat,ondo deritzigu.Guztiak eta bakoitza gizartearen onerako.Zer dala-ta baña ez gizartea gizakiarentzat ?."Iñor ez bere buruz;guztiak alkartuta gizartearen onerako ",dasagute gizartekeri-zaleak.Gizakiaren onerako ez izatekotan,zer dala uste dute baña sozialistok gizartea ?.Aidean egaz dabilen ipurtargiren bat ala ?.

Lateria baño lenagoko ez alda gizona ?. Bai,irakurle,lateria baño lenago da gizona. Nola ta zertarako sortu zuan gizona lateria ere esan dizut. Nondik nora eskuratu ditu bada lateriak orelako eskubideak ?.Noiztik nora gizona uztarpetzeko eskubidea ?.

Lateriak,gizonak berak sortua danez,gizakera besrtatik ernetakoa danez,ezin lezakio gizonaré ostoporik jari bidez.Entzun XIII Leon Doipuru jakintsuak diona:"Gizonak eta sendiak giz-alkargoren bat eratzean,laguntza bearez eragozpena,ta begirapen bearez bere eskubide-eustea idoroko ba´lituzke,maitagari baño gorotogari obeto litzeka gizartea". Ona emen Doipuru jakintsuak diona!Ona emen lateriarentzat bidé zuzena.Gizertakeri-zaleentzat erantzuna.

Lenera joaz,gizonak ez daukala alkar-artu-emanik gizartean ?.Ez gera iritzi ortakoak. Ba´du gizonak alkar-artu- emanik gizartean.Gizonak gizartea osatzean,alkar-artu-emana aukeratu du gizalokari.Gizonak egin-bear- asko izaki,ta eginbearok obeto betetzearen sortu ditu sendi,lateri t.a.

Sendiak,senar-emazteak ez al dute alkar-artu-emanik ?.Senarak emazteari,ta emazteak senarari ez al dio zor laguntzarik ?.Zer litzatekez langile-alkargoak alkar-artu-emangabe ?.Ez beintzat alkargo. Langileak,batzartzean,alkar-artu-emaneko arauak ezartzea dute lenen-lan.Gañontzeko giza-batzarak ere alkar-artu-emana dute lenen arau.

Ikusi degunez,oker dagoz gizartekeri-zaleek.Doipuru ta gure iritzi aurka.Gizaki ta gizakiaren kaltez. Biotz-zabal eta langile zaitut;lan,bada,beti,irakurle.

$$$$$$$$$$$$$$$$$$$$

## L A N A K.

I/Olerkia....................2 ika.
2/Umearen zentzuna.............3 "
3/Jainkoaren izatea............6 "
4/Eusko-langilea...............8 "
5/Tximist indeŕa...............IO "
6/Iraśoŕa......................II "
7/Aztikeria....................I3 "
8/Eŕi-sinistiak................I5 "
9/Joxe Luis....................I6 "
Io/San Pedro Atxaŕe............I8 "
II/Gure Jaupalgotza............I9 "
I2/Eta biar zer ?..............22 "
I3/Gizartea....................25 "

---

"A U R E R A - B E T I
Kardaberaz-Bazkuna
Bazkidiak

Albitzu'tar Anastasi
Anakabe'tar Kepa
Aritzmendi-Aŕieta'tar J.M.
Azpitarte'tar Joseba
Etxebaŕia'tar Palikan
Esnaola'tar Serapin
Gangoiti'tar Marzelo
Gorostidi'tar Kepa
Mendizabal'dar Alexander
Narbaiza'tar Eŕamon
Oyarzabal'dar Andoni
Zamora'tar Joseba Mirena
Zubilaga'tar Genar
Zuluaga'tar Domeka.

---



KARDABERAZ-BAZKUNA
IKASI TA ZABALDU
"AURERA-BETI"